

OSTEGUN BIDAIAIRIAK 2017 – OINARRIAK:

1. **Lehiaketaren helburua:** Opor atarian, bidai ezberdinen esperientziak konpartitzea diaporamen bitartez, entzuleek bidaietarako ideiak izan ditzaten.
2. **Antolatzailea:** Aretxabaletako Udala.
3. **Parte hartzaileak:** Gehienez 4 parte-hartzaile izango dira lehiaketan. Banakakoek zein taldeek parte hartu ahal izango dute, Debagoienean jaio, ikasi, lan edo bizi dena.
4. **Aukeraketa:** Izena ematen dutenen artean aukeraketa bat egingo da diaporamen kalitatearen eta bidaiaren egingarritasuna eta praktikotasuna kontuan hartuta. Parte-hartzaileek diaporamaren laburpen bat eta argazki batzuk aurkeztu beharko dituzte. Hortaz, jasotako proposamenetatik 4k izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera.
5. **Diaporamaren iraupena:** 30-60 minutu arteko diaporama.
6. **Hizkuntza:** Aurkezpena euskaraz egin beharko da.
7. **Bidaiaren ezaugarriak:** Aurkeztuko diren bidaiak azken 5 urteotan egindakoak izan beharko dira. Bidaiak izan ahal dira ikasketa bidaiak, praktikaldiak, Erasmus-ekoak, oporretakoak, turismokoak, exotikoak, gertukoak...
8. **Emanaldiak:** Emanaldiak Aretxabaletako taberna ezberdinetan izango dira, ostegun iluntzetan, 21:30ean. Emanaldien egunak honakoak izango dira: maiatzak 25, ekainak 1, ekainak 8 eta ekainak 15.
9. **Izen-ematea:** Martxoaren 20tik apirilaren 7ra bitartean aurkeztu beharko dira bidaiaren laburpena eta argazkiak, gazteria@aretxabaleta.eus helbidera idatziz edo 943 71 18 62 telefonora deituz.
10. **Publikoak emango du botoa:** Ikusleek aukeratuko dituzte irabazleak bozka emanez. Ikusleek diaporama ostean bakarrik eman ahal izango dute bozka tabernan bertan kokatutako buzoian. Garrantzia emango zaio bidaiaren egingarritasunari eta bidaiak transmititzen duen gertutasunari. Ekimenaren helburua bidaietarako ideia iturri izatea da.
11. **Sariak:** Publikoaren saria 100 eurokoa izango da. Bestalde, parte hartzaile guztiek 50 euroko sari-ordaina izango dute.
12. **Oinarrien onarpena:** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.